

Lehenengo eta behin, egun on guraso, ikasle eta irakasle guztioi.

Eskerrak eman nahi dizkizuegu txikitatik gurekin egoteagatik eta gurekin batera ikasi eta disfrutatzeagatik.

Oso harro gaude gure eskolaz, irakasleez eta ikasleez.

Gaurtik aurrera, etapa berri bat hasiko dugu, baina beti eramango zaituztegu gure bihotzean.

Lehenengo mailara heldu ginenean, ez genekien irakurtzen, ezta idazten ere. Eta gaur egun dakigun guztia zuei esker da; beraz, eskerrik asko urte hauetan hainbeste irakatsi diguzuen irakasle eta hezitzaileei, Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzakoei.

Eskerrik asko Gurasoen elkartekoei ere, beti gure alboan eta laguntzeko prest egon direlako. Eta, zer esanik ez, Zuzendaritza-taldekoiei eta jantokiko begiraleei!

Ez dugu sekula ahaztuko Eskolak irakatsi digun guztia, ez bakarrik ikasketetan, baita eman dizkigun baloreetan ere.

10 urte hauetan, disfrutatu egin dugu eskolaz, eta seguru gaude institutura heltzen garenean ere eskola gogoan edukiko dugula.

Beraz, mila esker urte hauetan gugatik egin duzuen guztiagatik.

**GURE ESKOLAZ HARRO, BENETAN HARRO, SENTITZEN GARA!**